



LEMA

Recogida y gestión inteligente
de basuras marinas para autoridades locales

NEWS LETTER

#5





Irakurle agurgarriok,

Atsegin handiz aurkezten dizuegu LifeLEMA proiektuaren bosgarren buletina.

Bertan, LifeLEMA proiektuko harremanak eta beren kideek beste proiektu eta eragile batzuekin dituzten harremanak bildu dira. Sareak sortzea funtsezkoa da gure lanean, eragin eta ideia berriekin harremanetan jartzea eta itsasoko zaborra modu zorrotzagoan eta multiformeagoan lantzea ahalbidetzen baitugu.

Gainera, esperientziak partekatzeko eta epe luzeko harremanak luzatzeko aukera ematen digu, homologo eta solaskide kopuru handiago batera iristeari esker (GKE-en sektorea, enpresa handiak, merkataritzaren sektorea, gobernuaren erakundeak eta ordezkariak, etab).

Egia esatearren, EBko Life programaren xedea Life proiektuak elkarren artean lotzea da, hala helburu handiago bat lortzeko:

2020rako europar mailako ekintza-plan bat sortzea. Bruselako ate-irekiak, Sevillan egindako MARLICE foroa edota Vienan antolatutako EGU-ren batzar nagusia bezalako ekitaldiei esker, LifeLEMAko kideak ingurumenaren eta, zehazki, ingurumen-babesaren alorreko beste solaskide batzuekin harremanetan jarri dira.

Garrantzitsua da buletinaren atal bat sre-eraketaren alderdi horiei eskaintzea, proiektuaren zati garrantzitsua baitira.



POSTMARLICEFOROA ETA EMAITZAK



Apirilaren hasieran, LifeLEMA proiektuak MARLICE foroan parte hartu zuen, itsasoko hondakinei eta ekonomia zirkularrari buruzko nazioarteko lehenengo foroan. Itsasoko zaborra, europar eta nazioarteko politiken erronka berrien ildo estrategikoa denam gizateriaren erronka handienetakoa da. Halaber, AEBM elkarteak sortu da (Asociación Española de Basura Marina) ingurumenarekin lotuta dauden erakundeen esfortzuak bateratzeko. Azken xedea, gai horren kudeaketa sustatzen duten estatu-mailako, Europako eta nazioarteko lan-ildoak hobetzea da. MARLICE foro emankorra izan da LifeLEMArentzat. Mediterraneoko eta Atlantikoko kostetan abian diren proiektu ugari ezagutzea ahalbidetu du, eta ideak mundo osoko kide interesdunekin partekatzeko aukera izan da.

Era berean, Itsas Estrategiari buruzko Esparru-Zuzentarauan (MSDF ingeleraz) itsasoko hondakinei lotuta agertzen diren alderdi teknikoak ere landu dira foroan.

Ildo horretatik, alor ezberdinetako adituek osatutako lantaldeek egikaritze-aukera ezberdinak jorratu dituzte. MSDF zuzentaraua EB-ko lehenengo legegintza-tresna da itsasoko bioaniztasunaren esparruan.



Bere helburu esplizitua 'gaurtik 2020ra bioaniztasuna babeste' da, GES (ingurumenaren egoera ona) lortzeko giltzarri gisa. Funtsezkoa da ur berdinetan jarduten duten kostaldeko eskualdeetako europar estatuek eta alboko herrialdeek lankidetzan bat ezartzea eta lankidetzan hori Itsasoko Eskualde-Hitzarmenetan agertzea. Hemendik 2020ra bitartean GESa lortzeko, EB-ko estatu bakoitzak estrategia bat garatu beharko du bere itsasoko urentzat. Ikuspuntu horretatik baiatuta, Marlice foroak adituen arteko elkarrizketa bultzatu zuen eta mundu-mailako estrategia bat ezartzeko bidean helburu partekatu batzuk lortzea sustatu du.

Elkarrizketa horretan, funtsean, itsasoko zaborraren kudeaketaren jarraipena eta modelizazioa landu ziren.



Azkeneko eguna herritarren parte-hartzearen inguruan ardatzu zen. Odiel-eko padurako ingurune naturalean egin zen jardunaldia. Boluntarioek Marliceko foroako kide gisa eman zuten izena eta, hala, protokolo ezberdinen bidez itsasoko zaborraren jarraipena egiteko herritarren zientzia baten sorrera esku hartu ahal izan zuten. Honako hauek dira protokoloak: OSPAR, MED, POL EsMarEs, Marine Litter Watch eta Marnoba.



19/06


AGENDA #5


27/06

LIFELEMA-KO AMAIERA EKITALDIA



EASMEREN BISITA


 Gonbidapen bidezko ekitaldia

 Donibane Lohizune

 <https://www.google.com/maps/place/>

 Ekitaldi irekia

 Kursaal biltzar jauregia

 <https://www.google.com/maps/place/>

la-ia LifeLEMA proiektuaren amaieraren une berean, EB-ko zenbait ordezkari Euskal Herrian izan ziren proiektuaren garapen-egoera eta amaierako lorpenak ebaluatzen. Bisita hari esker, LifeLema proiektuko kideek aurrerapen teknologikoak, azkeneko hiru urteetan ezarritako protokoloak eta emaitzak erakusteko aukera izan zuten. LifeLEMA proiektuaren mugaz haraindiko alderdiak ere azpimarratu ziren, parte-hartzaile eta interesdun guztiak biltzeaz gain.

LifeLEMAko kideek amaierako emaitzen zirriborro bat aurkeztu zuten. Proiektu hau beste espazio batzuetan errepikatzeo aukera eta tokiko eta nazioarteko politiketan daukan eragina ere landu zen. LifeLEMAko beste alderdi garrantzitsu batzuk ere jorratu ziren, batik bat etorkizunari begira: post-Life plana. EASMEko kideak itsasontzi-irteera bat egin zuten aborra biltzeko gure itsasontziek duten metodologia ezagutzeko.

Ohore handia izan da EBko ordezkariak elkarrizketatzea eta haiei LifeLEMAko tresna teknikoen eta emaitzen berri ematea.

Abuztua LifeLEMA proiektuaren eta udaren amaiera izango da. Hala ere, taldearen asmoa zen eragile te teknikari guztiak ekitaldi batean biltzea, doakoa eta jende guztiarentzat irekia egongo zena. Itsasoko zaborrari eta kutsadurari buruzko eztabaida bat antolatu zen adituekin eta gizarte zibileko kideekin. Zaborraren atzemate- eta jarraipen-tresna aurkeztea zen helburua, eta egungo politiketa eta tokiko erakundeen esku-hartze eremuan izango zuen eragina azaltzea. Emaitza horiek erakundeen itsasoko zaborraren kudeaketa erraztuko dutela espero dute LifeLEMAko kideek.





07/19

AGENDA #5

UDAKO OSPAR KANPAINAK



Boluntario talde eta eskolekin antolaturiko ekitaldia



Gipuzkoako hondartzetan

<https://www.google.com/maps/place>



LifeLEMAREN azken OSPAR kanpainetako bat da. LifeLEMAko kideak euren boluntario taldeekin elkartuko dira hondartzetatik itsas-zaborra jasotzeko, bereitzeko eta OSPAR protokoloaren arabera zenbatzeko. Abuztuan LifeLEMak bere azkeneko bilketa egingo du proiektuaren esparruan, Herritarren Zientzia sortzeko ekintzen artean txertatuta dagoena.





NICOLAS SUSPERREGUI,
Comité Interdépartemental des Pêches
Maritimes et des Elevages Marins
Pyrénées-Atlantiques Landes

Itsasoan ur gainean dauden tamaina handiko plastikoen %70 inguru arrantza-ontzietatik dator. Ba al da arrantzak sortutako eragina murrizteko tokiko ekimenik?

Oro har, arrantzaren esktoareak sortutako plastikozko hondakinak soilik 'istripuen' ondoriozkoak izaten dira (aparailuen galera, ekipoaren galera itsasoaren egoera dela eta,...). CIDPMEM 64-40-ak hiru puntutan oinarritutako estategia bat dauka: baliabideen kudeaketa, tokiko arrantza-produktuen optimizazioa, ikuskapena eta berrikuntza. CIDPMEM 64-40, gainera, PECHPROPRE programan sartuta dago, itsas kooperatibaren buruzagitzapean erabilitako arrantza-aparailuen borondatezko kudeaketa-kate batt ezartzen lagundu nahi duena.

Zure iritziz, nola lagundu dezakete arrantzaleek proiektu honen esparruan garatutako tresnak hobetzen?

Modu informalean, dagoeneko tresna horien hobekuntza sustatzen dute, kontuan izanik modu naturalean eta irratia bidez zaborraren kokapenaz jakinarazten diotela ItsasBellara itsasontziari, KostaGarbiaren bidez zabor hori biltzeaz arduratzen dena. Oraingoan naturala den ekimen hori formalizatu egin ahalko litzateke.

LifeLEMAko kontseiluko kide gisa, proiektu honek arrantzaren sektoreko jardunbideak aldatzeko xedea duten ekimen berriak agertzeko aukera ematen duela uste duzu?

Itsas zaborraren %70 itsas hondoa dagoela uste da; %15a gainazalean flotatzen egoten da eta %15ak gure kostan amaitzen du (Itsasoaren eta Itsasbazterren Behatoki Nazionala, 2015). Arrantza-ontzien bidez itsas zaborra biltzea eta lehorreratzea ekintza osagarri bat izan daiteke, LifeLEMA programaren esparruan itsasoko zabor flotagarria biltzeko jardueraz gain.

LifeLEMA proiektuaren esparruan garatutako gailuek arrantzaleei informazio baliagarria eman dakiekeela uste duzu?

Arrantzale profesionalek kolektiboak haratago, euskal kostaldeko itsas zabor flotagarrien jarraipenak itsasoko erabiltzaile guztien nabigazio-segurtasuna hobetuko du. Enborrak lokalizatuta egoteak talkak saihestuko ditu eta zaborra non dagoen jakiteka helizeak buxatzeko arriskua murriztuko du.